

Ez zuen asko itxaron, beraz. Liburuak esandakoari kasu egin eta, hegaztiak ikusteko onenak goizeko lehenengo orduak direla jakin zuen. Jakin, eta frogatu. Iratik, leihoa ireki gabe, prismetikoak hartu eta gereziondora zuzendu zuen begirada, kristalaren beste aldetik.

- Ualaaaaa!!! Baina zer da hau?

Prismetikoek urruti zegoena gerturatzeko balio zuten. Begientzat txikia zena handi bihurtzen zuten. Eta horrela, zuhaitz zaharraren enborraren xehetasun guztiak ikus zitezkeen. Baita arrakalarik txikiak ere! Eta adarrak, loreak, eta beraz... adarren artean mugituko ziren hegaztiak ikusteko aukera paregabea izango zuen!

Bitartean, ordea, prismetikoekin gereziondoaren azpiko zelaia begiratzen hasi zen. Egia zen. Denok etxean ginenetik ez zen lorazainik pasa, eta belarra hazten ari zen. Kolore ezberdinak ere hartu zituen dagoeneko. Hainbat lorek osaturiko alfonbra ederra ari zen bihurtzen. Baina, zein lore ote ziren?

Ezin zituen bertatik bertara ikusi, baina bai kontatu: Oraingoan, 9 gorri, 7 hori eta 4 urdin. Naturako irakasleak esaten zien zelaietako belarra moztu gabe utziz gero, bere kasa joaten zela hazten, eta astero-astero lore ezberdinak ikus zitezkeela loratzen.

Iratik froga bera egitea pentsatu zuen. Egunero prismetikoekin kontatuko zituen lorategiko loreak, eta horrela esperimendu txiki bat egingo zuen: etxe inguruko paisaia nola aldatzen zen aztertzen zuen esperimendua. Ikertzailea izatea zoragarria zen!!!!

Iñaki Sanz-Azkue - Eñaut Aiertzaguenaren



Ausartu zure marrazkia sortzera!

Ez zuen asko itxaron, beraz. Liburuak esandakoari kasu egin eta, hegaztiak ikusteko onenak goizeko lehenengo orduak direla jakin zuen. Jakin, eta frogatu. Iratik, leihoa ireki gabe, prismetikoak hartu eta gereziondora zuzendu zuen begirada, kristalaren beste aldetik.

- Ualaaaaa!!! Baina zer da hau?

Prismetikoek urruti zegoena gerturatzeko balio zuten. Begientzat txikia zena handi bihurtzen zuten. Eta horrela, zuhaitz zaharraren enborraren xehetasun guztiak ikus zitezkeen. Baita arrakalarik txikiak ere! Eta adarrak, loreak, eta beraz... adarren artean mugituko ziren hegaztiak ikusteko aukera paregabea izango zuen!

Bitartean, ordea, prismetikoekin gereziondoaren azpiko zelaia begiratzen hasi zen. Egia zen. Denok etxean ginenetik ez zen lorazainik pasa, eta belarra hazten ari zen. Kolore ezberdinak ere hartu zituen dagoeneko. Hainbat lorek osaturiko alfonbra ederra ari zen bihurtzen. Baina, zein lore ote ziren?

Ezin zituen bertatik bertara ikusi, baina bai kontatu: Oraingoan, 9 gorri, 7 hori eta 4 urdin. Naturako irakasleak esaten zien zelaietako belarra moztu gabe utziz gero, bere kasa joaten zela hazten, eta astero-astero lore ezberdinak ikus zitezkeela loratzen.

Iratik frogatuta bera egitea pentsatu zuen. Egunero prismetikoekin kontatuko zituen lorategiko loreak, eta horrela esperimendu txiki bat egingo zuen: etxe inguruko paisaia nola aldatzen zen aztertzen zuen esperimendua. Ikertzailea izatea zoragarria zen!!!!

